

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3656

431/2022 EBAZPENA, ekainaren 30ekoa, Tolosaldeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendarigerentearena, zeinaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Tolosaldeko ESIan Villabonako Lehen Mailako Arretako Unitateko Erizaintzako Gainbegiralea lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia egiten den.

Tolosaldeko ESIan Villabonako Lehen Mailako Arretako Unitateko Erizaintzako Gainbegirale lanpostua hutsik egongo da laster. Hori dela eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztaillaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, honako oinarri hauen arabera

OINARRIAK

1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

- a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako langile finkoa izatea (estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratuduna) eta lanpostua jabetzan edukitzea B1 lanbide-taldean.
- b) B1 titulazioa edukitzea.
- c) Gutxienez 2 urteko lan-esperientzia edukitzea.
- d) Hizkuntza-eskakizuna: 2. hizkuntza-eskakizuna, eta derrigortasun-data: 2019ko abenduaren 3a.
- e) Uztaillaren 19ko 186/2005 Dekretuaren eta Osakidetzako Euskara Planaren gainerako betebeharrak betetzea.

2.– Aintzat hartuko diren merezimenduak.

- Azken bost urteetan Lehen Mailako Arretan izandako lan-esperientzia.
- Esperientzia eta/edo prestakuntza izatea Lehen Mailako Arretako Erizaintzako unitateak planifikatzen eta antolatzen.
- Esperientzia izatea ekipoak antolatzen eta kudeatzen.
- Ofimatika eta lanpostuarekin zerikusia duten aplikazio informatiko korporatiboetarako buruzko eza-gutzak izatea (Osabide AP/OGP).
- Irakaskuntzan esperientzia izatea.
- Ikerketa-proiektuetan parte hartzea.

– Osasun-zentro bateko Lehen Mailako Arretako Unitatearen memoria-proiektua.

Lanpostuak eskatzen dituen betebeharrak garatzeko interesgarriak diren edo balio erantsia duten bestelako merezimenduak ere aurkez daitezke.

3.– Euskararen ezagutza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.

4.– Eskerak egiteko epea eta aurkezteko modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Tolosaldeko ESiko Langileen Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak (San Esteban auzoa z.g., 20400 Tolosa). Horretarako, 15 egun balioduneko epea izango dute, ebazpen hau EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aurkeztu ahal izango dira, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eran.

Interesdunek Tolosaldeko ESiko Langileen Zuzendaritzara bidali behar dute eskabidea (San Esteban auzoa z.g., 20400 Tolosa), beren datu pertsonal guztiak eta Curriculum vitae dokumentuarekin batera.

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

– NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.

– Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala bada, gorkio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.

– Baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.

– Baloratu beharreko merezimendu guztien fotokopia konpultsatua.

CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran.

5.– Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko, eta izangaiari horren berri emango zaie.

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, eginbide osagarriak gauzatzea erabaki dezake; eta izangaiari horren berri emango die, eta egokitzat jotzen badu, elkarriketa pertsonal bat egitea erabaki ahal izango du.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake epaimahaiak, betiere aurreko txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiak betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak eta gauzatutako eginbide osagarriak (halakorik balego) zerrendatuko dira, eta lanpostua eurretako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango.

6.– Hautaketa prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdia EHAA n argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ezta eskerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

7.– Prozedura amaitzeko ebazpena.

Honen bidez hasitako prozedurari amaiera emango zaio (lanpostua esleitzea edo betetzeke uztea) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Tolosaldeko ESIko zuzendari-gerentearen ebazpen bidez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu EHAAn argitaratzen den egunetik, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

8.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Tolosa, 2022ko ekainaren 30a.

Tolosaldeko ESIko zuzendari-gerentea,
MARIA LUISA MERINO HERNANDEZ.